# NEXT CARE ADHESIO PROTOKOLOA

## Bizitza-luzetasuneko Berrikuntzaren Mugaz Gaindiko Euro-Polo Proiektua

Erakundea:

Kargu instituzionala:

Izena eta abizena:

Bazkide gisa atxikitzeko protokolo hau sinatzen duenak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza buru dela, NEXT CARE (aurrerantzean, NEXT CARE Proiektua) **Bizitza-luzetasuneko Berrikuntzaren Mugaz Gaindiko Euro-Polo Proiektuan** helburu, jarduera eta emaitza hauek adostea dakar.

**I. Helburuak**

NEXT CARE proiektuaren helburu orokorra mugaz gaindiko ezagutza eta ikaskuntza-gune bat garatzea da, zaintza-ereduetan eta bizitza-luzetasunaren politika publikoetan berrikuntza bultzatzeko.

NEXT CARE proiektura atxikitzeak bizitza-luzetasunari buruzko berrikuntzan ezagutzak, tresnak eta esperientziak produzitzen eta banatzen lagunduko dela inplikatzen du, bertako kideen, erakunde laguntzaileen eta, oro har, gizartearen onurarako.

**II. Jarduerak**

Jardueren Urteko Ekintza Plana NEXT-CARE proiektuaren liderrak proposatuko du, eta atxikitako pertsonen eta erakundeen artean zabalduko da. Plan ezberdinek honako jarduera hauek jaso ahal izango dituzte:

a. Bizitza-luzetasuneko berrikuntzan ikerketa eta esku-hartzea sustatzea irismen desberdineko azterlanak eginez eta, bereziki, mugaz gaindiko eta Europako proiektuen deialdietan parte hartuz.
b. Kideen artean bizitza-luzetasunari buruzko esperientzia berritzaileak babestu eta trukatzea, webinar-en, ikasketa bisiten eta aldizkako mintegien bidez.

c. NEXT-CARE SAREAn, Next Care web-plataformaren bidez, egindako lanaren berri ematea, urteko topaketak, newsletter-a eta jardueren eta emaitzen zabalkundea sustatuz baita sare sozialetan ere.

d. Bizitza-luzetasuneko berrikuntzarako beste sare/ekimen batzuekin aliantzak garatzea, Europako beste eskualde batzuekin ikasteko espazioak sortzeko.

## III. Koordinazioa

NEXT CARE Proiektuaren idazkaritza teknikoa GIZALABen (Gizarte Politiketako Berrikuntza Zentroa – Eusko Jaurlaritza) ardura izango da, NEXT CAREren eta bazkideen jarduerak koordinatzeaz eta hedatzeaz arduratuko da.

## IV. Indarraldia

NEXT CARE proiektuari atxikitzeko epea mugagabea da. Kide atxikitzaile bakoitzak bere atxikitzea uzteko askatasuna du, bere erabakia behar bezala jakinaraziz.

## V. Lurralde-eremua

NEXT CARE proiektuak Euskadi, Nafarroa, Akitania Berria eta Okzitania arteko mugaz gaindiko eremua garatzen du, eta Arku Atlantikoko beste eskualde batzuetara eta Pirinioetako Lan Elkartera ere hedatu daiteke.

Hala ere, Europako beste eskualde batzuek parte hartu ahal izango dute azterlan konparatuetan, ikaskuntzako webinar-etan, jardunbide egokien elkartrukean eta bizitza-luzetasuneko berrikuntzarekin lotutako beste jarduera garrantzitsu batzuetan.

___________n, _______ko ____________________(r)en ____________an